

1- IRAKURRI TESTUA ARRETAZ.

BIZIKLETA BERDEAREN ISTORIA

Behin batean, neskak batek bizikleta margotu nahi izan zuen eta kolore berdea aukeratu zuen. Neskak oso gustoko zuen berdea. Baina neba zaharrenak esan zion:



-Ez dut inoiz bizikleta berderik ikusi. Hobe duzu gorriz margotzea, politagoa izango da eta.

Gorria ere atsegin zuen neskak. Beraz, kolore gorria hartu eta bizikleta gorriz margotzen hasi zen.



Baina neska bat zera esan zion:

-Edonork du bizikleta gorria! Zergatik ez duzu urdinez margotzen?

Gure neskatxak ondo-ondo pentsatu eta urdinez margotu zuen bizikleta.



Baina mutiko batek zera esan zion:

-Urdina? Bai iluna! Alaiagoa duzu horia!

**Eta neskaxari ere halaxe iruditu zitzaion,
horia alaiagoa zela, alegia. Eta kolore horiaren
bila joan zen.**



Baina neba etorri zitzaion orduan eta zera esan esan zion:

-Gorriz margotzeko esan dizut! Gorria, hartu gorria!

Neskatxa barrez hasi zen. Berriro ere kolore berdea hartu eta bizikleta berdez margotu zuen, belar kolorez. Besteek esandakoa, berriz, bost axola!



VectorStock®

VectorStock.com/21861493

URSULA WÖLFEL

Barre egiteko hogeita zortzi istorio (Moldatua)

1.- Bete hutsuneak:

- 1- Neskatxak kolore _____
margotu nahi zuen _____,
kolore hori gustoko zuen eta.
- 2- Anaiak kolore _____
margotzeko esan zion, berak ez zuelako
inoiz _____ koloreko bizikletarik
ikusi.
- 3- Neska batek esan zion ez margotzeko
kolore _____. Orduan, gure
neskatxak _____ margotu
zuen.
- 4- Zein kolorez margotu zuen azkenean
bizikleta? _____.
- 5- Axola al zitzaion neskatxari besteek
esandakoa? _____.